



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

KULTURA, EUSKARA ETA KIROL BATZORDEAK 2018KO AZAROAREN 20AN EGINDAKO BILKURAREN HITZEZ HITZEZKO TRANSKRIPZIOA

*Goizeko hamabiak eta hogeita hamazazpian
hasi da bilkura.*

BATZORDEBURUAK (Agirre Garitaonandia): Bueno, ba egun on denoi, bai, eta ongi etorri Kultura, Euskara eta Kirol Batzorde honetara. Bueno, gai zerrendaren lehenengoko gaiarekin hasiko gara, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuraren akta irakurri eta hala badagokio onestea. Onartzen da? Bai.

Beraz, bigarren puntua beste egun baterako utzi da. Hori jakinaren gainean egongo zaretenez, hirugarren puntuarekin jarraituko dugu. Batzordeak eskatutako agerraldia, azal dezan "Migratzaileek eta desabantaila egoeran dauden ikasleek lan testuinguru elebidunetan lan egiteko gaitasun komunikatiboak" izeneko COMBI europar proiektua. Horretarako, gurekin dago Petra Elser, Banaiz Bagara elkarteko zuzendaria. Ongi etorri eta eskerrik asko etortzearren.

Orain hitza Euskal Herria Bildu taldeko Rebeka Uberak hartuko du.

UBERA ARANZETA andreak: Bai, bueno, eskerrik asko, mahaiburu anderea. Lehenik eta behin eskertu Elser andereari gure gonbita onartzeagatik eta gaur gurekin egoteagatik.

Guretzat garrantzitsua baita zaintza eta mendekotasuna arloak Euskal Herria Bildurentzat estrategikoak dira, arrazoi desberdinengatik. Ikustea besterik ez EAEko biztanleriaren eboluzioa zein den eta bueno, ja dagoeneko erronka hor daukagu eta zer esanik ez hemendik urte batzuetara.

Arlo hauek ere garrantzi berezia hartzen dute gure taldearentzat arrazoi desberdinengatik. Ez bakarrik biztanleriaren eboluzioagatik, baizik eta arlo





hauetan sartzen diren politikengatik edo egiten den lanketagatik, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzen direlako edo ez, inklusioa bideratzen delako edo ez, kalitatezko arreta eskaintzen delako edo ez.

Badakigu alor hauetan, momentu honetan, kanpotar ugari murgiltzen direla, atzerritar ugari ikusten ditugu zaintza eta mendekotasun arloetan lanean. Beraz, kontsidera dezakegu arlo estrategikoak direla inklusioa lantzeko, beste kultura eta hizkuntzetako herritarrak lanaren bidez gizarteratzeko, gure herrian integratzeko, ez?

Eta, beraz, gaurko agerraldian eskertuko genuke, Elser anderea, azalduko bazenigu zer den zehazki COMBI proiektua, zer ekarpen egiten digun COMBI proiektuak, zergatik den garrantzitsua. Guk dakigun apurra da lanerako oinarritzko hizkuntza gaitasunak bereganatzeko lana egiten omen da proiektu horren bidez. Hizkuntzaren eremu guztiak menperatu gabe. Hau da, soilik hizkuntzaren gaitasuna eskuratzeko bide bat dela. Irakaskuntza metodo proaktibo eta berritzaileen bidez. Eta proiektu honek, xedetarik, proiektu honen xedetariko bat dela zaintza alorra, bai?

Beraz, bukatzen joateko eta, bueno, lehenengo txandan ezin baldin baduzu denboragatik, bigarren txandan erantzungo bazenit ere eskertuko nuke. Eta galdera, azken galderak hauek dira, ez? Euskal Erkidego... Autonomo Erkidegoan zein ekarpen egin diezaguke proiektu honek? Dagoeneko erkidego honetan abian da proiektu hori, ez da abian? Lanbideren ikastaroetako baten ezarrita dago, ez dago ezarrita? Orain arte zein harrera izan du proiektu honek gure erkidegoan? Erakundeen aldetik, harrera ona izan da, ez da izan, ez da ezagutzen? Lanbiderekin harremanik baduzue? Eta gero jakin nahiko genuke ere ea Europa mailan herrialderen baten ezarrita dagoen edo ezartzeko bidean dagoen edo nola dagoen.

Eta besterik gabe, ba eskertuaz zure azalpenak. Besterik gabe, ba zurea da txanda. Eskerrik asko.

BANAIZ BAGARA ELKARTEKO ZUZENDARIAK (Elser): Bai. Bueno, bai?

BATZORDEBURUAK: Jaso dezaten, batez ere, beraz, Elser anderea, zurea da hitza.





BANAIZ BAGARA ELKARTEKO ZUZENDARIAK (Elser): Eskerrik asko, egun on, eskerrik asko batzordekideak eta batzordeburu andrea gaur hemen egotea aukera emateagatik. Eskerrik asko EH Bildu taldeari gonbidapen hori egiteagatik. Oso gustura azalduko dizuet COMBI proiektua eta gero saiatu zaitezte libre edozein galdera egiteko.

COMBI proiektua Erasmus Plus-eko proiektua da. Erasmus Plus seguru asko, asko ezagutzen duzue, baina orain arte batez ere ezaguna izanda, edo bueno, Erasmus ezaguna izanda, ikasleei aukera emateko European zehar...

- (2. zintaren amaiera)
- (3. zintaren hasiera)

... batez ere, ezaguna izanda, edo bueno, Erasmus ezaguna izanda, ikasleei aukera emateko European zehar bidaiatzea eta ikastea.

Eta duela hiru urte hasi da Erasmus Plus formatua sartzen, Europako Batzordeak bultzatuta. Eta horrek ere aukera ematen du langileentzako formaziora. Eta orduan, aurkeztu genuen, orain azalduko dizuet zehazki zer den. Kontua da COMBI proiektua, lehenengo aldiz, Erasmus Plusen deialdian da proiektu bat hizkuntza gutxituak kontuan hartzen duena Europako mailan. Eta hori guretzat oso lorpen handia izan da eta oso garrantzitsua.

COMBI proiektu honek dauka sei partaide, bost hizkuntza gutxituen eremutan. Orain azalduko dizuet zeintzuk diren partaideak. Baina beno, iraugo du 2016tik 2019a arte. Eta emaitzak izango dira: hasieran, ikerketa bat; gero, irakasleentzako materiala. Ez da ikasleentzako materiala, baizik eta irakasleentzako; eta, baita ere, gomendio politikoak. Horren barruan, hiru urte horien barruan, hiru ekitaldi publiko edo beno, jardunaldi egin dugu edo egingo dugu. Biak eginda daude: bat zen 2017an, Donostian; beste bat, aurten, Palermon; eta datorren urtean, amaierako ekitaldia, Swansea Unibertsitatean, Galesen egingo da. Eta horretaz gain, zabalkundeko guneak ere ditugu: web orri bat, *newsletter* bat, Facebook eta Twitter. Horren guztien informazioa jasoko duzue gero ea sakondu nahi baduzuen edo hori ikusi nahi baduzuen.

Orduan, COMBI proiektuan bost hizkuntza-eremu hartzen dute parte: bat da Frisian, era berean kokatuta dagoena; bat da Finlandia, baina horko





suediar hizkuntza edo Suedia komunitatea; gero, Euskal Herria, euskararekin, bi partaide gaude hemen, Banaiz Bagara, ni nator Banaiz Bagara elkartetik; eta baita ere Elhuyar Aholkularitza; gero, daukagu Gales, Swanseako Unibertsitatea; eta Sicilia, Centro per lo sviluppo creativo Danilo Dolci. Erakutsiko dizuet, pixka bat ideia bat egiteko, nolakoak diren partaide bakoitzaren profilak, zeren hizkuntza gutxituen egoera ez da partaide guztietan berdina. Baina, hala ere, guretzat ere izan zen aukera desberdintasun horren bitartez, herri ikastea eta pixka bat ikustea bakoitzaren beharra.

Euskal Herriarekin antza handia daukana da Wales, Gales: orduan, 3.000.000 biztanle eta 119 galesezko hizkuntzaren hiztunak. Gero, daukagu Euskal Herria: zenbakia da... dakiten zenbakia, ez hainbeste erabiltzaileen zenbakia, baina guztien artean, partaide guztien artean kopuru handiena daukagu Euskal Herrian, hori ere esan behar da. Gero, Finlandian: egoera desberdina da, zeren komunitatea oso eremu jakin batean bizi da. Orduan, bakarrik eremu horretan, suediar hizkuntza, bakarrik eremu horretan hitz egiten da. Baina eskubide daukate suediar hiztunak edozein jarduera, beraien hizkuntza ere egiteko eremu horretan eta hiriburuan.

Eta gero, daukagu Friesland, Frisiar: hor, hiztun kopuru oso handia daukagu, (166?), baina idazten duten kopurua oso txikia da, eta normalean, administrazio publikoa nederlanderaz funtzionatzen da eta ez frisiarraz. Eta bukatzeko, Sicilia: egoera berezian dago, zeren asko hitz egiten da siziliarraz, populazio autoktonoen aldetik. Baina beno, hemen pixka bat (...) jartzen da populazioa 5.000.000 eta hiztunak ere 5.000.000, ken behean agertzen den etorkin kopurua, zeren etorkinek jasotzen dute italierazko ikastaroak eta ez "siziliarrazko" ikastaroak. Eta orduan, gertatzen da etorkinak italieraz hitz egiten dute eta hori lanean ere erabiltzen dute, eta bereziki adinekoen zaintzan arazo handiak sortzen du.

Orduan, COMBIko emaitza hori egiteko, irakasleentzako materiala gehi gomendio politikoak, pixka bat elementu horiek erabili edo erabiltzen ari gara, edo horiek dira eragile faktoreak, material hori sortzeko eta lantzeko. Hasieran zen beharren azterketa, ikusteko pixka bat orain komunitate bakoitzean non dauden beharrak, zein motatako ikastaroak edo zein motatako neurriak behar diren. Ikastea ere praktika honetatik, ba hor ere gero aurkeztuko dizuet pixka bat Euskal Herrian praktika ona asko daukagu, adibidez euskara planak ez dira existitzen beste herrialdetan...

(3. zintaren amaiera)





(4. zintaren hasiera)

... Euskal Herrian praktika ona asko daukagu, adibidez, euskara planak ez dira existitzen beste herrialdetan, Gales ezik. Edo hizkuntzaren kontzientziazioa askotan ez da existitzen, baina guk ere ikasi dugu, adibidez, Galeseko komunikazio kanpainatik edo Frisiako zahar egoitzei zuzendutako materiala ezagutu genuen. Orduan, praktika onak herrialde bakoitzean daude eta hori guztia jaso dugu.

Gero daukagu adituen talde bat, herrialde bakoitzean gai horretan adituak. Euskal Herrian dira: Arantza Lekuona, Gipuzkoako Kabia erakundearen zuzendaria eta Xabier Ayerbe, soziologoa eta ere Eusko Jaurlaritzan garai batean aholkularia izan zena.

Eta gero hor erritmo horretan lan egiten dauden taldeak hartzen dugu kontuan: adineko pertsonak, langile migratzaileak, hizkuntza irakasleak; gero erakundeak eta enpresak, zahar egoitzak eta etxez etxeko zaintza kudeatzen duten enpresak. Eta baita ere, oso garrantzitsua, lanbide prestakuntza; zeren arreta soziosanitarioan, ikastaroetan edo formakuntzetan ikasten dute zaintzaile gehienak beraien ofizioa eta horrekin ere hizkuntzarekin daukaten jarrera ala ez.

COMBIren elementu zentral bat da *Teacher Training Toolkit*, hori da irakasleentzako materiala. Eta Toolkit horretan, toolkit hori da gida liburu bat, manual bat irakasleentzako. Eta orduan, hor hainbat elementu hartzen dugu kontuan, batez ere irakaskuntza integral bat lortzeko. Hau da, hau ez da hizkuntza irakaskuntzan normalean dena, beno, A1 mailarekin hastea, A2 pasatzera, B1era pasatzera, eta hori guztia azterketa formalizatu baten bitartez, baizik eta metodologian berrikuntza sartzea.

Hau da, behean ikusten duzue behaketa: zeintzuk dira benetako hizkuntza beharrak, zertaz hitz egin behar dute pertsonak adinako zaintzan. Gero metodo berrikuntzan, nola erakutsi metodologia hori. Gero ikusiko duzue pixka bat argazki batzuk, zer esan nahi dugu horrekin. Baina jada hizkuntza ikasterakoan lantzea lanbide horretan behar duzun hitz egiteko mota eta nola lortu hor komunikazio emankorra edo atsegina.

Gero, beste pauso garrantzitsu bat da ebaluazioa. Hor ikusiko duzue ebaluazioan ere alde egin behar da gaur egungo azterketa formatuetatik; zeren halako lanbideetan, adinekoen zaintzan, ez da berdina zuk zaintzailea





izatea, zuzenean harremanetan adineko pertsonekin edo zuzendari bat izatea, txosten bat idatzi behar duena. Orduan, pertsona batekin elkarrizketa eroso edo atsegina edukitzeko ez da beti beharrezkoa gramatikoki zuzentasuna, edo esaldi oso bat osatu ahal izateko B1 azterketa pasatzeko, baizik eta, askotan, askoz gehiago hurbiltasuna, ulermena. Euskaraldia dela eta asko hitz egiten da hori buruz, Belarriprest eta halako famatuak.

Orduan, horiek dira elementuak, faktore soziolinguistikoak, guk ere hor kontuan hartzen duguna, pixka bat alde egiteko orain arte daukagun euskararekin edo hizkuntzarekin ikasbideak buruan.

Orduan, esandakoa. Elementu zentrala da metodologia berrikuntza, eta hori osatzen dira simulazioak benetako tresnekin, adinekoen zaintzan benetan erabiltzen diren gauzekin.

Gero, beno, pixka bat erlojuaren alderantziz joaten baldin bagara, kultura aniztasuna. Zeren, batez ere, adinekoen zaintzan langile asko etorkinak dira, beste kulturetatik etortzen dira. Eta datorren urteetara begira, gizartean zahartze prozesuan bitartez askoz zaintzaile gehiago beharrezkoak dira. Eta zaintzaile horiek lortzeko, derrigorrez, ikusten zen ere ikerketan langile migratzaileak kontratatzea, ez da beste aukerarik. Orain arte Euskal Herrian, batez ere, Latinoamerikako pertsonak egiten dute lan, baina beste eremuetatik etortzen diren pertsonak, adibidez, Marokotik edo Afrikatik datozen migratzaileak ere sartzen dira lanbide horretan. Orduan, ez da bakarrik kontuan hartu behar hizkuntza, baizik eta ere pertsonak daukaten kultura ulermena, edo hemengo kulturaren ezagutza.

Eta gero, beste faktore bat da egoera soziolinguistikoa. Hau da, ez da bakarrik hizkuntza eta hizkuntzaren zuzentasuna, baizik eta, askotan, adibidez, zahar egoitza bat funtzionatzen du gaztelaniaz, baina egoiliarak euskaldunak dira, edo familian igual gaztelera hitz egiten da, baina adineko pertsona euskalduna da. Orduan, zaintzaile batek ere ulertu...

(4. zintaren amaiera)

(5. zintaren hasiera)

... euskaldunak dira edo, familian igual gaztelera hitz egiten da, baina adineko pertsona euskalduna da. Orduan, zaintzaile batek ere ulertu behar du zein da hemengo egoera eta nola erabili ahal dira ere bi hizkuntza eta ez





da beti beharrezkoa hizkuntza bat osoa ezagutzea, baizik eta konbinatu ahal dira ere hizkuntzak emaitza ona lortzeko.

Orain ikusiko dugu pixka bat ikerketa zer eman duen, nola den egoera orokorrean. Orduan, COMBI sortzen arrazoa da ere emigrazioaren egoera. Hau esan nahi du, bueno, izan dugu 2015ean migratzaile kopurua Europako Batasunean 4,7 milioi migratzaile. Orokorrean migratzaileen egoera gero eta mobilitate gehiago dauka. Horrek esan nahi du ez da garai batean bezala migratzaileak herrialde batera migratzen dira eta hor geratzen dira, baizik eta lan merkatuaren arabera pertsonen mobilitatea gero eta handiagoa da. Eta horren barruan hizkuntza, enplegua lortzeko edo enplegua ondo bete ahal izateko, hizkuntza gero eta faktore garrantzitsuena da.

Gero, ikerketaren beste parte bat zen zein garrantzia du hizkuntza adinekoen zaintza edo orokorrean osasungintza, ez? Eta hor badaude ikerlari batzuk ia aurrera gutxik hortaz ikertu dutenak eta guk kontuan hartu ditugunok gure ikerketa horretan eta zabal frogatuta dago pertsona, gaixo dagoen pertsona baten egoeran zein hizkuntza hitz egiten diozun pertsona horri eragin handia du. Bai faktore emozionaletan, zaintzaile, hurbil sentitzen diren horietan, eta adinekoen egoeran, batez ere, demenzia prozesuetan ere oso argi frogatuta dago eta hau gure ikastaroetan parte hartu zituzten ikasleak gero hori esan dute, zein eragina du ama hizkuntza ulermen edo, bueno, adi egoteko prozesu horretan. Zeren pertsona asko demenzia fasean, bakarrik gogoratzen dute ama hizkuntza eta ez beranduago ikasi duten hizkuntza.

Orduan, hainbat arrazoiengatik hizkuntza dauka gako, bueno, egoera bat, komunikazioa dauka gako egoera bat zainketa prozesuan.

COMBI bera, beste ikerketa kontuak hartzeaz gain, COMBI proiektuan bertan egin dugu ikerketa bat. 216 pertsona parte hartu zuten eta hor lau talde izan ditugu: migratzaileak enplegua bilatu zutenak osasun lanetan; migratzaileak dagoeneko osasun lanbidetan lan egiten dutenak; gero adineko egoitzen zuzendariak eta beste adineko zaintzarekin arduratzen duten enpresaburuak; eta irakasleak bai Lanbide Heziketan eta bai hizkuntzan.

Orduan, ikerketa oso zabala izan da. Ikusi ahal duzue web orrian dago testu bat horri buruz emaitzak adierazten dena. Baina, hemen, bueno, emaitza bat erakutsi nahi dizuet, hemen galdetu genituen zenbat pertsona jaso dute ikastaro bat Estatuaren hizkuntzan, hemen izango litzake gaztelania eta





bueno, ikusten da erdia baino gehiago ez zuen jaso. Horrek izan liteke zergatik ja dagoeneko gaztelania hitz egiten dutelako edo bueno, kalean edo beste nonbaiten ikasi dutelako eta, bueno, pixka bat azpian, % 44 jaso dute ikastaro bat. Eta, bueno, ikusten duzue respectivamente beste herrietan nola den egoera. Hori Estatuaren hizkuntzari dagokiona.

Eta orain ikusten dugu zenbat ikastaro jaso dute hizkuntza gutxituan. Eta hor ikusten da, bueno, dago... ondo, Euskal Herrian nahiko egoera onean dago. Esan behar da hor ikerketa guztia edo galdetu genituen pertsona guztiak ziren Gipuzkoan. Beste lurraldeetan igual egoera ezberdina izango da. Orduan, emaitza hori, bueno, igual pixka bat kontuz hartu behar da, baina orokorrean argazkia da hizkuntza gutxituan askoz gutxiago jasotzen da ikastaroak eta orduan, hizkuntza maila askoz txikiagoa da.

Bueno, hor, hauek dira galdetu genituen pertsona horiek, beno, esan zituzten...

(5. zintaren amaiera)

(6. zintaren hasiera)

... Beno, hor, hauek dira galdetu genituen pertsona horiek, beno, esan zituzten gauza batzuk, adibideak ingelesez dira, zeren hori da jatorrizko power pointa. Baina, adibidez, erizainak esan du batzuetan norberak bere hizkuntzan hitz egitea erakusten diozu pertsona hori pertsona oso bat kontuan hartzen duzula, edo errespetatzen duzu pertsona bat bere osotasunean; edo medikoak esaten du batzuetan garrantzitsua da hitz bakar bat diferentziarekin ahal da elkar ulertzea ala ez.

Eta orduan, ikerketaren emaitza osoan ikusi ahal duzue COMBI proiektuaren web gunean, dago publikatuta PDFn inprimatzeko liburuxka batean, eta posiblea da jaitea eta emaitza osoak jasotzea web orriaren bitartez.

Orain erakutsiko dizuet pixka bat proba praktikoak. Egin ditugu hiru ikastaro proba, guk landu ditugun materialarekin eta elementu, lehen aipatutako elementuak kontuan hartuta. Orduan, beno jada ikusten duzue jasotzaile taldeak nolakoak diren, hor pertsona gehienak lan egin zuten familietan, batzuek ikasi dute arreta soziosanitarioa eta beste batzuek lana bilatzen zuten eremu horretan.





Hori da praktikotasuna, igual beste elementu bat, hemen gizonak ikusten dira. Hori ere beste erronka bat etorkizunari begira, gizonak ere sartzea lan eremu horretan. Eta hori da guk lantzen duguna COMBI bitartez, laneko jarduerak, lanerako beharrezkoak direnak eta hizkuntza aldi berean. Eta hor ere ikusten da, adibidez, dutxa gaia, paseo gaia eta beno.

Emaitzak oso argi erakutsi zuten parte hartu zuten pertsona askok ez dute ikasketa maila altua, baizik eta ikasi dute bizitza osoan ia gauza guztiak egiten zuten bitartean, eta askoz errazago harrapatu zuten hizkuntza eta hizkuntzaren funtzioak, edo garrantzia, benetako ariketa praktikoetan.

Eta orduan, guk COMBIrekin sortuko dugu gida-liburu bat irakasleek halako ariketak erabiltzeko eta, aldi berean, gida-liburuaz gain *Open Learning* plataformaren bitartez online ikastaro bat eduki horiek gero jasotzeko.

Orain, zabalkundea. Hau da orain arte egindakoa, hori da Gipuzkoako Gizarte Politiken arduraduna, Maite Peña. Eta berak ireki zuen Gipuzkoako jardunaldia eta hor sektoreko pertsona asko, 200 pertsonak hartu zuten parte, bai osasungintza sektoretik bai hizkuntza irakaskuntza sektoretik, baita ere beste erakundeetatik. Adibidez, Emaus, Caritas, beno Lanbide Heziketa eta abar, formazio-prozesu horretan daudenak eta langile-kolektibo horrekin lan egiten dutenak.

Gero, egon ginen ere Europako Parlamentuan, *Intergroupen*. Hau da Arantza Lekuona, Kabiako zuzendaria, eta ni neu. Zeren gero, beno, dakizuen bezala, lanbide prestakuntzan neurri batean Europako Batasunak finantzatzen du eta erregulatzen du. Orduan, oso garrantzitsua da gomendio politikoetan, ez bakarrik jotzea lurraldeko edo tokiko arduradun politikoei, baizik eta beste maila batera, Europako mailan, zeren hor ikusten da ez da bakarrik, hizkuntza gutxituak ez dira bakarrik leku batean existitzen, baizik eta Europan hizkuntza gutxituen komunitate asko daude. Eta guk egiten duguna ez du bakarrik eragina bost komunitate edo herrialde horietan, baizik eta askoz gehiago daude egoera desberdinetan; adibidez, Korsika, Luxenburgo, Malta, etcétera, non problematika hori existitzen da eta, nolabait, kontuan hartu behar da.

Beno, hemen dira orain bi adibide non zeintzuk diren praktika on aurreratuak. Hori da Galesen, beno, ezagutu genituen bide oso interesgarria, izena du *Active Offer*. Hori da Galeseko, zerbitzu sozialak sortu duen, bueno, formatua edo kanpaina bat non...





(6. zintaren amaiera)

(7. zintaren hasiera)

... Galeseko, zerbitzu sozialak sortu duen, bueno, formatua edo kanpaina bat non ez da adinekoen edo zerbitzukoaren hartzailearen ardura eskatzea zein hizkuntza jaso nahi duen zerbitzua, baizik eta zerbitzuaren ardura da hori eskaintzea. Horregatik, Offer, zeren zerbitzuaren aldetik edo erakundearen aldetik eskaini behar da aukera hori zuk aukeratu. Zu zara zerbitzuaren jasotzailea eta zuk erabaki nahi duzun hizkuntza guk eskaintzen dizuegu.

Eta, beste aldetik,... bueno, beste aldetik dago Kabia erakundearen, duela gutxi sortutako oinarri politikoa edo gida lerroak, zer Kabia da Gipuzkoako erakunde bat hainbat zahar egoitza eta baita etxez etxeko enpresa bat hartzen du bere baitan erakundea bezala, eta ja erakundearen oinarritzko estatutuetan jasota dago zerbitzu erabiltzaile bakoitza egoiliar bakoitza eskubidea dauka berak nahi duen hizkuntzan atendituta izatea. Eta orduan, definituta daude hizkuntza jarraibideak nola dira agurrak, nola dira beste adierazpenak, nola jaso behar da egoilearen datak eta abar.

Eta horren, bueno, hori lortzeko neurriak hartuko ditu Kabia. Gehien bat hizkuntza eskakizunen bitartez. Baina, esan behar da ere ez da gaur egun, ez dira nahiko langilerik hori guztia betetzeko. Eta orduan, hor ere dago erronka bat eta halako egoeran espero dugu COMBI proiektuaren bitartez, lagungarria izateko eta zerbait aportatzeko langileen formaziorako.

Eta hemen daukazue, bueno, Gurutze Gorriak jarritako iragarki bat, arreta soziosanitarioan formakuntza egiteko informazioa, ikastaro baten informazioa, izena emateko eta hor ere, bueno, oso argi ikusten da, nahiz eta iragarkia bi hizkuntzetan adierazita dagoen, ikastaro horiek % 99takoan gaztelaniaz eskaintzen dira. Zeren euskaraz eskaintzeko kopuru minimoa egon behar litzake eta kopuru minimoa lanbide hori aukeratzeko duten pertsonen artean normalean edo gehienetan ez dago euskaraz eta, batez ere, hain zuzen, etorkinen kopurua oso altua da ikastaro horietan eta etorkinak dira, batez ere, formakuntza bide hori aukeratzeko diren pertsonak.

Eta orduan, hor ikusten da ere nor, zeintzuk antolatzen dituzte edo zeintzuk... planifikatzen dituzte ikastaroak: Lanbide, Eusko Jaurlaritzak eta Fondo Social Europeo, ez? Eta hortik datoz baliabideak eta hortik datoz ere





ikastaro horien ezaugarriak. Eta hor dago gure erronka handi bat, gero pixka bat zerbait esango dut horri buruz. Nola legistatu edo nola, zein gomendioak eman hor hizkuntza faktore bat izateko.

(Berbotsa)

BANAIZ BAGARA ELKARTEKO ZUZENDARIAK (Elser): Bai, bai, gutxi falta da. Bueno, igual, orduan amaierako, bueno, bukatuko naiz gomendio politikoak landu ditugu bai Europako mailan, bueno, igual utziko dugu. Baina, behintzat aipatuko ditut gomendioak euskararen eremuari begira, guk hemengo taldea pixka bat orain arte egindako lana ikusita zer esango genuke, ez?

Orduan, bat da ikasketa mailan orain azaldu dudana, hizkuntza ikasgaia izatea arreta soziosanitario ikasketetan eta osasungintzako lanbidetan hor, bai erizaintzat, adibidez, hau da, elebidunak ez diren ikasleentzat euskara lanbideari lotutako ikasgaia izatea, ez? Orain ikusitako formakuntza ikastaro batean, izatea ikasgai bat euskara, baina, euskara ja lanbiderako. Ez euskaltegi batean hizkuntza bezala ikasteko. Orain nahi duena, noski, hau bada eta, asko poztuko ginateke, baina kontua da hemen langileek lanbiderako ikastea hizkuntza.

Eta kontuan hartzeko ere Team Teaching, hori da hizkuntza eta lanbidea irakasten ari diren irakasleak elkarlanean aritzea. Hori da Europa osoan gero eta gehiago kontuan hartzen den formatu bat, hizkuntza eta teknikak erakusten duten irakasleak elkarrekin aritzea...

(7. zintaren amaiera)

(8. zintaren hasiera)

... kontuan hartzen den formatu bat, hizkuntza eta teknikak erakusten duten irakasleak elkarrekin aritzea.

Eta bigarrena, langileen formakuntza. Hori dagokio etxez etxeko zaintza eta zaharren egoitzako hizkuntza eskakizunik gabeko langileei. Zeren nahiz eta langile askok daukate hizkuntzako eskakizuna, baina gero ordezkapenak egiten dituztenak ez dute hori; orduan, euskara ez dakiten pertsona askok egiten dute lan, eta orduan, etxez etxeko zaintzan euskaraz ez dakitenen





hizkuntza-formakuntza, zaintzako subsidioaren bitartez erregulatuta. Hori izango litzake bide bat pertsona bat etxean hartzeko dirulaguntza jasotzen duten familiak, dirulaguntza horren bitartez ere langile edo zaintzaile horren hizkuntza-formakuntza bere gain hartu ahal izateko, erakunde publikoak finantzatuta.

Eta gero, denentzat euskara ez dakiten langileen hizkuntza-formakuntza lanari egokitua, etengabea, dinamikoa eta lanbideari zuzendutako metodologiarekin. Horrek esan nahi du, beno, gaur egun asko erabiltzen da *coaching* hitza, orduan, langile horientzat benetan merezi dutelako eta adineko pertsonak baita merezi dutelako, ez egitea ikastaro estandar bat, baizik eta benetan neurri bat egokituta beren lanari eta beraien beharrei; eta hor egon behar da diru bat horretan inbertitzeko, zeren diru hori da benetan zaintzaren kalitatean inbertitzea, eta adinekoen pertsona horien egoera hobetzea, baita ere langileena. Orduan, zentzu horretan...

Ba eskerrik asko entzuteagatik, hain luze! Eta beno ba, zuen txanda.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Elser anderea.

Orain, Euskal Herria Bilduren taldetik, Ubera anderea, zurea da hitza.

UBERA ARANZETA andreak: Lehenik eta behin, eskertu emandako azalpen guztiak. Bai eskertuko genuke gero, posible balitz, power pointa legebiltzar talde guztioi banatzea. Iruditzen zait baliagarria izan daitekeela gure lanerako.

Aipatu duzu, beno, gero gustatuko litzauguke bigarren txandan, aipatu dituzun gomendioak dira, Euskal Herrian garatu dituzuen gomendioak, ea Europa mailan gomendio horietaz gain beste gomendiorik ba ote dagoen edo ez.

Aipatu duzu, beno, Kabiarekin hizkuntza-irizpideen inguruan lanketa bat eginda dagoela, baina garbi esan duzu ez dela herrialdeka egin behar den kontu bat, baizik eta herri ikuspegi osoarekin egin behar dela. Konpartitzen dugu, guretzat ere gai hau estrategikoa da; bat, hizkuntza-eskubideak bermatze aldera, gainera, beno ba lehen esan dudan bezala, zaintza eta adinekoen esparrua, mendekotasuna duten adinekoen esparrua gero eta





Gobernu honek ea urratsik eman duen. Agian ez zuen onartu baina zerbait egin du, ez dakigu.

Jakin nahiko genuke ere, aipatu duzu proiektu hau 2016tik 2019ra arte dela. Orduan, ulertzen dugu ikerketa bat dela. Behin 2019a bukatu eta gero, zer? Hor badaukazue beste egitasmorik, gero jarraitzeko asmorik...

(8. zintaren amaiera)

(9. zintaren hasiera)

... ikerketa bat dela. Behin 2019a bukatu eta gero, zer? Hor badaukazue beste egitasmorik, gero jarraitzeko asmorik baduzuen, hori jakin nahiko genuke, nola lotzen den hurrengoko urratsak.

Eta jakin nahiko genuke ere ea Jaurlaritzarekin harremanik izan duzuen, edo hor aukerarik ba ote dagoen ikuspegi hau eta ikerketa honek ezartzen dituen gomendioak edo ondorioak eguneroko praktikan ikuspegi integral batetik ezartzeko, eta ez izateko ba herrialde soil batetako kontua, ez?

Eta gure partetik, besterik ez, eskerrik asko.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Ubera anderea. Orain, txikitik handira, talde Popularreko Barrio jauna, zurea da hitza.

BARRIO BAROJA jaunak: Sí, buenos días. Gracias, presidenta y bueno, agradecer la presencia de la representante de la asociación Banaiz Bagara en relación con estas cuestiones que se han planteado por parte del grupo EH Bildu, agradecemos la comparecencia.

La información ha sido completa en relación con lo que es el proyecto que venía a presentarnos, y bueno, para nosotros suficiente. No tenemos preguntas.

Muchas gracias.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Barrio jauna. Talde Sozialistatik, Andueza jauna, zurea da hitza.





ANDUEZA LORENZO jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu anderea. Gure aldetik ere, lehenik eta behin, eskertu eman dituzun azalpenak, guri ere bai gustatuko litzaiguke aurkezpena edukitzea, datu horiek guretzako oso interesgarriak izan direlako, eta zuen proiektuaren jakinean egoteko.

Guretzako azalpen oso sakona izan da, gauza interesgarriak eta datu interesgarriak ere mahai gainean jarri egin dira. Eta beno, guk dokumentazio hori aztertuko dugu, eta ez daukagu ere ezer gehiago esateko.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Andueza jauna. Elkarrekin Podemos taldetik, García Larrimbe anderea, zurea da hitza.

GARCÍA LARRIMBE andreak: Eskerrik asko, Agirre anderea.

Bueno, pues lo primero dar las gracias a la señora Elser por comparecer aquí, la verdad es que ha sido una exposición muy interesante. Y nosotras, desde nuestro grupo parlamentario entendemos que todo lo que sea fomentar el aprendizaje de lenguas minoritarias, en este caso, como es el euskera, pues es positivo, y todos los proyectos que vayan encaminados a fomentar esto nos parecen interesante, y van a recibir nuestro apoyo.

Si bien, si nos gustaría realizar una serie de cuestiones. Me ha parecido entender que usted, cuando hablaba de la investigación, hablaba de que los datos eran solo de un territorio, de Gipuzkoa. Y nos gustaría saber por qué y a qué se debe esto. Y por qué no, porque usted misma ha dicho que bueno, hay una diferencia importante y, yo añadiría, que una amplia diferencia entre unos territorios y otros, y nos gustaría conocer por qué solo se han basado en esta investigación concreta en Gipuzkoa.

Además, usted, bueno, ha alabado y ha hablado los planes para fomentar el euskera que, evidentemente, nos parecen muy positivos y, por supuesto, imprescindibles; pero de la misma manera, nosotras entendemos que hay conocer la realidad plurilingüe dentro del territorio vasco, y creemos que hace falta una herramienta como podría ser un mapa, bueno, que de alguna forma concretara y delimitara o no sé, nos concretara, cuáles son las lenguas en Euskadi. Y esta misma herramienta, además, nos parece útil





porque usted misma ha explicado antes que, bueno, que no solo una cuestión de conocimiento y de formación, sino que en el día a día nos permitiría hacer frente a situaciones complejas para las personas migrantes; básicamente, sobre todo, las relaciones con la administración, especialmente, en lo que respecta, usted misma se ha extendido con esta cuestión, a la atención sociosanitaria, a la cuestión de dar importancia a la propia integridad de la persona en el proceso de cuidados y en el proceso de atención. Y bueno, sobre todo, para que tenga las mismas oportunidades nos parece fundamental.

Y esta línea, nosotras hemos presentado una enmienda dentro de los presupuestos. Además, quiero hablarlo porque usted hablaba que uno de los primeros pasos dentro del proceso para realización de material del profesorado y para el propio proyecto era la evaluación de las necesidades. Entonces, nos gustaría saber qué le parece esta iniciativa, la creación de un mapa como herramienta útil de conocimiento de cuál es la realidad plurilingüística en Euskadi.

Y por el momento, la verdad es que eso es todo.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, García Larrimbe anderea. Euzko Abertzaleak taldetik, Urrutia jauna, zurea da hitza.

URRUTIA OIANGUREN jaunak: Eskerrik asko, batzordeburu anderea. Eta eskerrak eman Elser andreari bere azalpen eta presentziagatik gaur gure batzordean. Eguerdi on, denoi.

Beno, guri interesgarri egin zaigu esan dituzun gauzak, eta bat nator beste talde batzuekin esaten dutenengan power point hori helarazi ahal izango bazenigute, beno, ba seguru aski gaia irakurri eta sakonago aztertzeke aukera emango ligukeelako.

Ba bai, egia da, nik egin diodala nire buruari galdera hori, bai agerraldi eskaera hori etorri zenean bai zuk esan dituzunak entzun eta gero. Euskararen arloa erabat zeharkakoa da, badakigu, eta Kultura eta Euskara Batzordetik eta sailetik eta alorretik bultzatu behar dena, inongo zalantzarik gabe. Baina nik bai ikusi ditut zehaztaper batzuk propioagoak direnak gizarte





zerbitzuetako departamentukoak, edo baita lanbide prestakuntzari eta abarri dagokionak.

Inola ere, inola ere bai esan interesgarria eta, beste bozeramaileren batek esan duen bezala, estrategikoa iruditzen zaigula.

Bai nik galdera bat egitea nahi nizuke. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako sailaren batekin badaukazue harremanik edo izan duzue harremanik? Edo kontakturik gai hau sakontzeko edo tratatzeko? Ez?, lanean hasteko eta lanean hasita bazaude, zer mailatan zaudeten edo...

(9. zintaren amaiera)

(10. zintaren hasiera)

... ez?, lanean hasteko eta lanean hasita baldin bazaude, zer mailatan zaudeten edo zer fasetan zaudeten.

Nik, guzti hori dela eta bueno, ezin dut besterik egin bere egunean Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte diputatu den Maite Peñak zuen jardunaldian esan zuenarekin bat egin baino. Berak esaten zuen: "uste dugu zaintzak integrala eta kalitatezkoa izan behar duela, hau da, pertsonaren behar guztiei erantzuna emango diena. Hain zuzen, kalitatezko zaintzak pertsonaren eskubideak bermatzen ditu. Baina kalitatezko zaintza eta arreta ez dira ulertzen hizkuntza berdintasuna txertatu gabe". Horregatik da hain aproposa COMBI proiektua helburua duelako hizkuntza gutxituak irakastea modu erraz eta erakargarri batean. Hori dela eta, eta nik gizarte zerbitzuetako taldekideak baino sentsibilitate gehiago bereziki ez daukat euskara alorrean, zer gainera gizarte zerbitzuetako taldekidea ere banaiz. Baina hori dela eta, dena den guk gure prestutasuna eskaini nahi dizugu eta nahi dizuegu COMBI proiektu honek adierazten dituen gomendio eta xehetasun guzti hauei buruz lanean, ez dakit, hasteko edo jarraitzeko. Edozein modutan ere sakontzeko.

Eta, besterik gabe. Zure presentzia eta azalpenak berriro eskertuz, eskerrik asko.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Urrutia jauna. Beraz, Elser anderea zurea da hitza berriro.





BANAIZ BAGARA ELKARTEKO ZUZENDARIAK (Elser): Bai, eskerrik asko erantzun edo feedback on horrengatik. Asko, bueno, gure lana eta gure esfortzua ere nolabait errekonozitzen du adierazpen onak. Eta, bueno, saiatuko naiz pixka bat zuen galderei erantzuten.

Hasteko guk, bueno, gaurko agerraldian maila horretan lehenengo aldiz daukagu harremana Eusko Jaurlaritzarekin eta oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Zeren hor dago pausu estrategiko bat hori guztia, hor ateratzen diren emaitzak benetan gero errealitateari bihurtzeko eta nolabait proba pilotutik ja benetako egitasmo bati edo politika bati bihurtzea. Ni guztiz kontziente nago hori prozesu luze bat da, ezin da egun batetik bestera zerbait asmatu, baizik eta pausu txiki batzuk eman behar dira. Baina, espero dut gaurko azalpen horiekin halako lehenengo pausu txiki bat eman dugun.

Guk izan dugu Lanbiderekin, izan dugu harremana Itziar Etxebarriarekin, da Lanbide prestakuntza bi maila dira, Lanbide prestakuntza arduradun teknikoa, ez politikoa. Eta berarekin izan dugu harremana bere on iritzia jasotzeko proba bat egiteko Lanbide prestakuntzako ikastaro batean. Baina, hori ziren ordu batzuk proba hori eman zigun eta guk ere erantzun positiboa jaso genuen. Baina, uste dut hor bereziki Lanbide erakunde bezala da hor ere, deituta hor sartzeko pixka bat hausnarketa horretan.

Bueno, gero, 2019tik aurrera, zer edo zer gertatuko da proiektu horrekin? Material guzti hori Europako proiektutan derrigorrez den bezala, libre da jasotzea, ez ordaindu behar, orri batean egongo da bai gidaliburua bai beste, bueno, online ikastaroak eta abar. Baina irakasleak jaso ahal dute horren bitartez formakuntza bat eta erabili ahal dute metodologia hori. Baina hori guztia nire ustez, hori regulatzen duen politika bat gabe eta baliabiderik gabe alferrik izango da. Oso pertsona baten borondatearen arabera gaur egun ere guk gure elkartean lan egiten du udalerrietan eta zahar egoitzetan, eskaintzen ditugu ikastaroak. Batez ere, udaletxeak deitzen digute, familien egoera eta zaintzaileen egoera ezagutzen dutelako eta dakitelako zaintzaile asko ez dakite euskara, familiak euskaldunak dira.

Eta, orduan, halako (¿tantak?) edo gauzak egiten ari dira, baina ez du hori benetan egoera horri erantzunik ematen. Batez ere, hurrengo urteei begira, gizartea gero eta zaharragoa izango den eta gero eta zaintza gehiago behar izango dugulako.





Eta, orduan, hor dago gure esperantza eta hemen daukagun gomendio politikoak kontuan hartzea eta lantzea proiektuak erkidego mailan, beste lurralde mailan, hor benetan zerbait sistematizatzea. Hori da... eta gizarte zerbitzuak eta hizkuntza zerbitzuak eta formakuntza zerbitzuak elkarlanean. Eta hori da garrantzitsuena elkarlan hori benetan emaitzak lortzeko.

Eta gero, galderari erantzuteko zergatik bakarrik Gipuzkoan. Bueno, guk gabezia bezala ikusten dugu arazo tekniko bat dauka, zeren bai Elhuyar eta bai gu, gure egoitza nagusia eta lana guztia Gipuzkoan dugu eta...

(10. zintaren amaiera)

(11. zintaren hasiera)

... ikusten dugu arazo tekniko bat dauka, zeren bai Elhuyar bai gu, gure egoitza nagusian eta lan nagusia Gipuzkoan dugu eta ikerketa hori egin zen, beno 2.045 pertsonak hartu zuten parte. Pertsona horiek galdetegi-sorta erantzun behar zuten, hiru orri zituen, eta beno, ez da erreza pertsona horiek lortzeko. Baina guk ere ikusi dugu bidean nahiko hizkuntzaren egoeran datuak..., nahiko gabezia. Zeren baita Gipuzkoan eta baita Kabian ez daude datuak erregularri jasotzen duena, ezta ere egoiliarren hizkuntza nagusiei buruz, ezta ere langileen hizkuntzari buruz. Estatistikoki badaude data jakin batzuk herri batzuetatik, baina ez sistematikoki zahar egoitza guztiena edo langile guztiena, egoiliar guztiena.

Orduan, hor bai izango litzateke oso interesgarria datu horiek jasotzeko eta, noski, are gehiago Araban eta Bizkaian, zeren hemen seguru aski zahar egoitza batean guztiz gaztelaniaz funtzionatzen duenenean, pertsona euskaldunak igual ez dira detektatzen, inork hitzik esaten ez dutelako. Ez bada beraien familiarekin edo, baina horregatik nik uste dut interesgarria izango litzake halako lan estatistikoa egitea gero, benetan, mapa bat edukitzea eta erantzuna eman ahal izatea.

Eta gero, beno, beste galdera bat zen Europa mailan eta zer gomendio ematen diren. Beno, maila ezberdinetan, pixka bat oro har esateko, bat da sistematikoki etorkinen harreran eta etorkinei eskaintzen den hizkuntzak ikasteko aukeretan, sistematikoki hizkuntza gutxituak kontuan hartzeko, eta ez izatea..., beno, hizkuntza gutxituak hitz egiten diren eremuetan noski, baina ez izatea gaur egun bezala automatikoki estatuko hizkuntza eskaintzen den hizkuntza; eta gero, beno, aukeran, hizkuntza gutxitua ikasi ahal da edo ez da ikasten, bakoitzaren arabera. Zeren hori gero pertsona horien integrazioari





begira eta pertsona horien lan aukerei begira, bi mailako gizartea egiten da. Eta horrek eragina du, edo ondorioa du, gero etorkinak estatuko hizkuntza hitz egiten duten.

Eta, beno, beste artikulua batean ere COMBIren barruan jada hasi genuena, lanpostu finkoak lortzen dituztenak, adibidez, zahar egoitzetan autoktonoak dira, zeren horiek edo hemen jaiotako beste herrialdeetakoak, zeren beraiek gaintzen dituzte hizkuntza eskakizunak lanpostu horiek lortzeko. Baina, alde batetik, ez daude nahiko langilerik, eta beste aldetik, ez da hori gizarte justua horrela izatea, baizik eta guk behar dugu pertsona migratzaileak hemen ere lan egiteko eta gure gizartea aurrera eramateko, eta horren ondorioz ere aukera berdintasuna bermatzeko pertsona horiek aukera berdina eduki behar dute, bakarrik horra iristeko laguntza gehiago behar dute. Eta orduan, horretan, hemen kontuan hartzeko ere nola eskaini pertsona horiei laguntza hori.

Eta uste dut hori zen... Bai.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Elser anderea. Ubera anderea, zurea da hitza orain.

UBERA ARANZETA andreak: Bakar-bakarrik eta bukatzeko, ba eskertu emandako azalpen guztiak, oso interesgarria izan da. Eta ea, beno, gaurko agerralditik aurrera gai garen bere egunean mahai gainean jarritako planteamenduak aurrera ateratzeko, gainerako taldeekin adosteko eta bultzadaxo bat emateko; zeren, benetan, gaia iruditzen zaigu interesgarria ikuspegi oso desberdinetatik. Bata, justizia sozialagatik, pertsona horiek ere merezi dutelako, behar dutelako, eta gainerakoan eskubide berberak dituztelako ba enplegua lortzeko, hizkuntza ezagutzeko, gure herrian integratzeko, abar eta abar.

Justizia sozial kontua delako, eta bestetik, guk ere eta gure aitona-amonak eta gure adinekoak ere, ba eskubidea dutelako, behar dutelako kalitatezko zaintza zerbitzua jasotzea, ez? Eta hor, zalantzarik gabe, ba hizkuntza-irizpideak ere txertatuak egon behar dira, eta erakundeetatik ere txipa jarri behar da zerbitzua eskaintzerako orduan ba zerbitzu hori nola eskaintzen dugun, ez?





Eta iruditzen zait etxeko lan asko ditugula egiteko eta beno, ea poliki-poliki joaten garen guztion artean etxeko lan horiek egiten.

Eskerrik asko.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Ubera anderea. Barrio jaunak ez du hitzik hartuko. Andueza jaunak ez du hitzik hartuko. García Larrimbe andereak ezta ere. Urrutia jauna? Ez du hitzik hartuko.

Beraz, azken hitza zurea da, Elser anderea.

BANAIZ BAGARA ELKARTEKO ZUZENDARIAK (Elser): Bai, nik ere berriro eskertu nahi dizuet entzuteagatik eta interesagatik. Eta esandakoa, gurea da proiektu horren bitartez gomendioak eman ahal izatea, eta gomendio horiek zuen esku eta, seguru aski, forma ere izango dute proiektuaren bukaeran gomendio guzti horiek. Eta espero dugu hortik, beno, lantalde transbersal bat sortzea, benetan, gomendio horiek politika bihurtzen...

(11. zintaren amaiera)

(12. zintaren hasiera)

... eta espero dugu hortik, bueno, lantalde transbersal bat sortzea, benetan, gomendio horiek politika bihurtzen duena. Hori izango litzake gure emaitza onena proiektu horrekin lortu ahalko genuke.

Mila esker.

BATZORDEBURUAK: Mila esker zuri, zure proiektuaren berri ematearren. Eta hurrengora arte, eskerrik asko.

Bera agurtuko dugu eta, ondo baderitzozue, gai ordenaren hurrengo puntuarekin jarraituko dugu, legez besteko proposamen bat da. Nik eramango dudanez, Ramírez-Escudero presidenteordeak hartuko du mahaiburutzat. Ondo baderitzozue. Bai? Eskerrik asko.





(Geldiunea)

Batzordeburuordeak bere esku hartu ditu batzordeburu lanak.

BATZORDEBURUORDEAK (Ramírez-Escudero Isusi): Eguerdi on guztioi. Eta orain, legez besteko proposamena, irakurketa errazari buruz. Euskal Herria Bildu, Agirre anderea.

AGIRRE GARITAONANDIA andreak: Ba, egun on. Eta, bueno, formatu errazean joango da gaurko legez bestekoa.

Irakurtzeak ematen duen plazeraz ez zaituztet konbentzitu behar, zuotako bat baino gehiago irakurle amorratuak zarete, batzuk idazleak ere bai, plazera da irakurtzea baina hori baino askoz gehiago ere bada. Gu hemen bagaude da denok irakurtzeko gaitasuneko handia daukagulako eta irakurtzen izan duguna ulertzeko gai izan garelako. Irakurtzeak formazioaren atea zabaltzen dizkigu, informazioarenak, kulturarenak,... pribilegiatuak gara. Baina herritarren % 30ek, hau da, hamarretik hiruk irakurtzeko zailtasunak dituzte arrazoi askorengatik, arrazoi fisiko, psikiko edo sozialengatik edo autista direlako, gor mutuak, dislexiadunak, analfabetoak direlako, heldu berriak direlako edo ez dutelako hizkuntza menperatzen.

Pertsona guzti horientzat guretzat pribilegioa dena kontrara bihurtzen da, muga da. Formazioaren atea itxita dute, informazioarena, kulturarena eta jakina, plazerarena ere bai. Herri aurreratua izan gura badugu, irakurtzea ezin da pribilegioa izan, eskubidea, eskubide demokratikoa izan behar da. Herritar informatuak eta formatuak gura baditugu, herritar kritikoa, denok eduki behar dugu irakurtzeko eskubidea eta jakina, euskaraz irakurtzeko eskubidea ere bai.

Horregatik uste dugu irakurketa errazeko formatuak bultzatu behar direla. Irakurketa errazarekin lehen irakurtzen ez zutenek orain irakurri egiten dutelako, lehen irakurri ezin zutenek orain irakurri egiten dutelako eta lehen irakurri gura ez zutenek orain irakurri egiten dutelako.





Europako iparraldeko herrialdeetan oso aurreratuta daude arlo honetan eta Europako hegoaldera etorrira, Katalunia da aurreratuen. Haren atzetik geu, baina, oso urrun. Ahalegina egiteko sasoia heldu da, badaukagu horretarako gaitasuna, prestutasuna eta zabaltasuna. Eta, bueno, gaur lortu dugun akordioak hori erakusten dut.

Horregatik uste dugu erakundeok konpromisoa hartu behar dugula irakurketa erraza bultzatzeko eta, batez ere, indar berezia egin euskarazko irakurketa errazean, zailtasunak dituztenen ezinak oraindik handiagoak direlako euskalduna izanez gero, edo euskaraz ikasi gura dutenentzat. Material eskasia handia dago euskaraz, eskaria eskaintza baino askoz handiagoa da eta hizkuntzaren normalizaziorako guztiz beharrezkoa da zailtasuna dituztenen eskura euskarazko materiala jartzea.

Beraz, bueno, hor jasota, gure erdibidekoan jasota dagoen bezala, Jaurlaritzari eskatzen diogu modu berezian babestu eta bultzatu ditzala sortzaileak eta argitaletxeak irakurketa errazeko formatuko lanak sortu eta argitaratu ditzaten. Eta, batez ere, euskaraz, hizkuntzaren normalizazioa bultzatzeko horrela.

Era berean, irakurketa erraza ez den oso ezaguna, gure artean, zabalkunde kanpainak egiteko eskatzen diogu Jaurlaritzari eta bereziki liburutegietan, bertako langileak formatu horretan trebatuz ere bai.

Hortaz, gogoratu beharra dago ere Jaurlaritzak hemen Podemosek egin zuen emendakina kontuan hartuta, Legebiltzar honetatik, orain dela bi urte, ia urte bi jasotako mandaturia ere bete behar duela. Eta honela zioen hitzez hitz: "Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarri dezala neurri horien artean sartzen, jarrai dezala neurri horien artean sartzen irakurketa errazeko tresnetarako irispidea errazten dutenak, irisgarritasuna, dibertsitate sentzoriala, funtzionala, intelektuala duten pertsonen ez ezik, herritar guztiei ere bermatuz. Neurri horiek gobernantza eta berrikuntza publikoko 2020 planaren denbora esparruan egikaritzen jarraitu beharko da". Hori bete beharra dago eta hemen Euzko Abertzaleak taldetik egin duzuen zuzenketan ere jasota dago plan estrategikoaren barruan dagoela. Alderdi Popularrarenean ere jaso dugu.

Beraz, neure aldetik, besterik gabe, eskerrik asko denoi zuen prestutasunagatik. Eskerrik asko.





BATZORDEBURUORDEAK: Eskerrik asko, Agirre anderea. Eta orain, Elkarrekin Podemos, Edurne García anderea.

GARCÍA LARRIMBE andreak: Eskerrik asko...

(12. zintaren amaiera)

(13. zintaren hasiera)

... eskerrik asko denoi zuen prestutasunagatik. Eskerrik asko.

BATZORDEBURUORDEAK: Eskerrik asko, Agirre anderea. Eta orain, Elkarrekin Podemos, Edurne García anderea.

GARCÍA LARRIMBE andreak: Eskerrik asko mahaiburu jauna. Bueno, pues lo ha explicado muy bien la señora Agirre. Es evidente además que tras la comparecencia que tuvimos hace unas semanas por parte de todos los grupos había una voluntad de impulsar una serie de medidas porque entendemos que... y más desde nuestro grupo parlamentario, que la lectura y el propio acceso a la información son un derecho, que además todo lo que sea o todo lo que tenga que ver con facilitar la accesibilidad a las personas con diversidad funcional, sensorial o intelectual y a la comprensión en general de toda la ciudadanía suponen un valor de transparencia, de democracia y de incluso la propia participación a la hora de cómo se acerca la ciudadanía a las diferentes informaciones.

Ha habido, evidentemente, un acuerdo y un consenso, en lo que respecta a nuestro grupo parlamentario presentamos una enmienda de adición con dos puntos, uno de los cuales es el del cumplimiento de una iniciativa que bien ha explicado la señora Agirre de enero de 2017 que, bueno, se comprometía a... en un plazo de 6 meses realizar pues todas las... barkatu, en un plazo de 6 meses no, perdonad, a la puesta en marcha de una evaluación de la accesibilidad de las personas con diversidad funcional, sensorial o intelectual, entendemos que tiene que estar integrado dentro de esta iniciativa y también incluíamos otro punto que hablaba de que el Parlamento Vasco hiciera... predicara con el ejemplo y se comprometiera a realizar en un plazo máximo de 6 meses, bueno, que todas sus comunicaciones públicas tuvieran el formato de lectura fácil, porque





entendemos que siendo una institución pública tendríamos que ser pioneras, o al menos llevar a una iniciativa con respecto a otras.

Ha habido un error técnico, el cual asumimos, pero entendemos que no es una cuestión de voluntad política, por lo tanto, presentaremos una iniciativa en este sentido, porque sí nos parece importante y además fue una de las cuestiones que la propia organización nos pidió y señaló que era difícil. Habló creo que de una cartelera del hall y complicado acceder hasta la sala, por lo tanto, creo que debemos... nosotras vamos a presentar una iniciativa en ese sentido, hemos retirado ese punto porque incurría en un error técnico y no queremos... nos parece importante que esta iniciativa salga por consenso, por lo tanto queda retirado ese punto, pero esperamos que cuando la presentemos tenga el mismo consenso, la misma unanimidad que esta iniciativa.

Mila esker.

BATZORDEBURUORDEAK: Eskerrik asko García anderea, eta orain Partido Popular, Carmelo Barrio jauna.

BARRIO BAROJA jaunak: Sí, muchas gracias presidente y buenos días de nuevo. Sí, telegráficamente también pues para manifestar nuestro apoyo a la iniciativa. Nosotros habíamos presentado una enmienda de adición entendiendo que lo fundamental ya se nos había explicado en la comparecencia de la asociación de lectura fácil, también tuvimos la oportunidad anteriormente de estar reunidas con las responsables y hablar y profundizar sobre este tema, y habíamos entendido que era bueno pues seguir avanzando en las instituciones en relación con implementar este tipo de posibilidades, de instrumentos para que el ciudadano pues tenga más facilidades de acceso a determinadas publicaciones, ellas mismas nos dieron un folleto donde hablaba de la lectura fácil y decía: "Leer, un placer y un derecho". Bueno, a veces eso es un problema, o sea, que eso no lo ponía, pero sí que es cierto que trataba de identificar esa cuestión cuando hablaban de que el 30 % de la población tiene dificultades lectoras, o sea que eso es verdaderamente importante y cualitativamente para reflexionar, ¿no?

Entendemos que nuestra enmienda era de adición, veíamos que se podía llegar, sin duda, a un acuerdo, y queríamos, lógicamente, también para





saber cómo afronta las instituciones que tienen que transformar determinados instrumentos o publicaciones a la lectura fácil, qué dificultades para implementar medidas o qué propuestas, y en ese sentido pues yo creo que era bueno también que un breve plazo el propio Gobierno analice esta iniciativa, pero también analice las posibilidades y qué instrumentos va a emplear, o sea que yo en ese sentido entiendo que avanzamos un paso más en relación con la accesibilidad y en relación con las personas que tienen problemas y dificultades lectoras pues un... instrumentos de futuro, sobre todo ni qué decir tiene con determinadas informaciones o determinadas publicaciones oficiales o... y demás, y también de otro tipo, informativas por parte de la Administración, y yo creo que ese esfuerzo, desde luego, merece la pena.

Muchas gracias.

BATZORDEBURUORDEAK: Eskerrik asko Barrio jauna, eta orain Partido Socialista Andueza jauna.

ANDUEZA LORENZO jaunak: Bai, labur laburrean. Nik esan behar nituen gauza asko ja esan dira. Beraz, ez naiz errepikatuko. Gainera, legebiltzarkide batzuk orain beste batzorde batera doaz eta ez naiz asko enrollatuko.

Bai interesgarria iruditu zitzagun proposamena. Guk emendatu egin genuen. Baina oinarrian ados gaude, ezta? Ez da bakarrik informazio publikoaren inguruan daukagun gauzak, baizik eta gero ere kulturara ?? gehiago edukitzeko erramienta bat. Eta hor asko egiteke daukagu eta Agirre andereak esan du bai irakurle edo idazle moduan askotan ere irakurle moduan pertsona asko ditugu ez daukatela ?? gauza askotan irakurtzeko. Eta gure ustez, erramientak jarri daitezke.

Creo que es una buena manera de intentar incorporar nuevas herramientas desde la Administración, no únicamente en todo lo referente a lo que es estrictamente la información pública, sino más allá de todo eso para poder potenciar una nueva manera de acceder a la cultura para aquellas personas que puedan tener dificultades; por lo tanto, por nuestra parte poco más que añadir. Creo que es de felicitar el consenso al que





hemos llegado a través de esta enmienda transaccional y nada más que añadir.

BATZORDEBURUORDEAK: Eskerrik asko Andueza jauna, eta orain Euzko Abertzaleak Urrutia jauna.

URRUTIA OIANGUREN jaunak: Bai, eskerrik asko batzordeburu jauna. Bueno, nik zerbait gehitzeagatik, nik daukat inpresio bat, bueno, ba gaur aurrera pauso bat eman dugula gai honetan.

(13. zintaren amaiera)

(14. zintaren hasiera)

... zerbait gehitzeagatik, nik daukat inpresio bat, beno, ba gaur aurrerapauso bat eman dugula gai honetan. Aurretik gainontzeko bozeramaileak esan dutenarekin ados gaude. Aurrerapauso txiki hori ematen dugu, beno, ez dakit txiki edo handi, baina ematen dugu, irakurketa errazaren gaia, nolabait, mahaigaineratzen dugulako, ez? Sarritan esaten den bezala agenda politikoan sartzen dugulako, eta horrek bere garrantzia dauka, bai inklusioaren aldetik baita euskararen partetik ere hizkuntza normalizazioari dagokionez. Besteak beste.

Beno, garrantzitsua, nik uste dut garrantzitsua dela akordioaren bitartez lortu izana eta aho bakartasunaren bitartez lortzea. Eta, gainera, beno, inpresio hori guk hasieratik izan genuen ikusi genituenean zeintzuk ziren jatorrizko ekimenari ipintzen zitzaizkion zuzenketak; iruditu zitzaizkigun arazoizkoak zirela eta eraikitzaileak zirela, eta alde horretatik, ba argi ikusi genuen hasieratik hemen akordio batetara iritsi gintezkeela iritsi garen bezala.

Besterik gabe, nik uste dut gaur zoriontzeko bezala gaudela gai honetan. Eta ba gainontzeko taldeak ere zoriontzea nahi nituzke, ba iruditu zaidalako hori, aurretik esan dudana, arazoizko jarrera eraikitzaile bat izan dugula.

Besterik gabe, eskerrik asko.

BATZORDEBURUORDEAK: Eskerrik asko, Urrutia jauna. Eta orain, bigarren txandan, Agirre anderea.





AGIRRE GARITAONANDIA andreak: Bai, eskerrik asko denoi. Eta nik ere zoriondu nahi zaituztet, ojalá beste gai batzuetan ere holako adostasuna balego, gauza ederra izango litzateke eta errazagoa dena, gainera.

Bat nator García Larrimbe anderearekin, ba erederuarekin egin behar dela lan, edo erakutsi behar direla jarrera politikoak eta beno, holako ekimenen bat proposatzen baduzue ba gure babesu edukiko duzue.

Beste barik, eskerrik asko denoi.

BATZORDEBURUORDEAK: Eskerrik asko, Agirre anderea. Eta orain, Elkarrekin Podemos, García anderea. Partido Popular, Barrio jauna? Andueza jauna? Urrutia jauna?

Pues votación.

Botazioa eginda, hauxe izan da emaitza: emandako botoak, 16 ; aldekoak, 16; aurkakoak, 0; abstentzioak, 0.

(Geldiunea)

Batzordeburuak bere esku hartu ditu berriro batzordeburu-lanak.

BATZORDEBURUAK: Beno ba, gai-ordenaren bosgarren eta azken puntua, eskari edo galderarik badago? Ez? Ba ez badago, amaitutzat ematen dugu gaurko batzorde hau.

Eskerrik asko, denei.

Arratsaldeko ordu biak eta lauak amaitu da bilkura.

